

KANALAK:

Bezeroekiko sortuko dugun komunikazioa interneten bidez izango da nagusiki eta gure aplikazioan egongo da komunikatzeko aukera. Aplikazioaren doikuntzetan laguntza zati bat egongo da eta horrela bezeroek arazoa izateko egoeran lagundu ahal ditugu laguntza euskarri batekin. Erabiltzaileek gure aplikazioan erregistroa egiten dutenean e-maila sartzeko aukera dute eta horrela aplikazioan dauden aldakuntza berrien informazioa jaso dezakete, eta gainera dituzten galderak edo zalantzak planteatu eta konpondu.

Gure aplikazioa, esan dugun bezala, Android eta IOS-en bidez jartzen da harremanetan bezeroekin. Gaur egun internet gure eguneroko zerbitzu azkar eta errez bat denez, gure produktua jendearekin sakabanatzeko modu ezin hobea da. Edozeinek erabili dezake aplikazio hau, hain zuzen ere, erosketak modu egoki eta erraz batean egiteko helburua dugulako, beste berrikuntza batzuen artean.

Supermerkatuak berak izango du erosketak bezeroen etxeetara eramateko ezaugarria. Elikagaien banaketa erraza eta efizientea izango da, produktuak fresko mantentzeko. Produktuak bezeroen eskuetaraino iristeko denbora neurtzeko aukera egongo da, bi ordutako denbora minimoarekin eta bi egunetarainoko maximoarekin. Denbora tarte horretan (bi egunetakoa) produktuak jasotzeko gutxi gorabeherako ordua hautatzeko ezaugarria izango du aplikazio honek, bezeroen eskariaren arabera.

Gure produktua saltzeko ez dugu inongo salmenta antolatuko, halaber dirua lortzeko egingo dugun jarduera supermerkatuekin zerikusia du. Supermerkatuek dirua ordainduko digute haiei zerbitzu bat eskeiniko diegulako, beraz ez diogu aplikazioari prezioa jarriko berarengan ez dagoelako dirua lortzeko erantzunkizuna. Supermerkatuei publizitatea egingo diogu haien produktuak gure aplikazioan eskaintzen eta GPS-an supermerkatu hoiak modu batez iragartzen.

